

Euskal Aditzari Begira

Adizki jokatuabeak -II-

Partizipioa

Partizipioa adjektibo

Partizipioa adberbio

Partizipioa izen

EAB 3

EUSKAL ADITZARI BEGIRA

gure aditza modu erakargarrian aurkezteko beste ahalegin bat da.

Gaurko bitarteko digitalak baliatuz,
euskal aditza pantailara eraman nahi dugu;
eta pantailatik, ikusle-ikaslearen hizkuntz-korpusera.

HELBURU NAGUSIA

HIZKUNTZA ZUZENTASUNEZ ERABILTzea

«Hizkuntzaren elementu formal eta mekanismoei buruz hausnartzea, haren maila fonologiko, morfosintaktiko, lexiko-semantiko eta testualetan, eta mezuen ekoizpen eta harrera baldintzei buruz, komunikazioko gizarte-testuinguruetan, berezko ekoizpenak arautzeko gaitasuna garatzeko helburuz».

«Hizkuntzaren irakaskuntzak *Euskal Hizkuntza eta Literatura* arloaren mugak gainditzen ditu, hizkuntza ia curriculum osoan irakatsitako ikaskuntza guztien euskarri delako, eta eskolako ikaskuntza-prozesuak, neurri handi batean, hizkuntza-gaitasunaren garapenaren mende daudelako».

Oinarrizko curriculum-diseinua

Euskal Aditzari Begira

Adizki jokatu gabeak -II-

AURKIBIDEA

Partizipioa.....	3
Partizipioa adjektibo.....	6
Partizipioa adberbio.....	10
Partizipioa izen.....	14

IZENA:.....MAILA:.....

Forma jokatu gabean agertzen diren adizkiek ez dute ez aldi-, ez pertsona-markarik hartzen; beste modu batera esanda, ez dute ez denborarik, ez pertsonarik adierazten.

Adizki jokatu gabeak hiru multzo nagusitan sailka daitezke:

Aditzoina: *etor, sar, har, eros, ikus...*

Partizipioa: *etorri, sartu, hartu, erosi, ikusi, bilatu...*

Aditz-izena: *etortze, sartze, hartze, eroste, ikuste, bilatze...*

PARTIZIPIOA

Partizipioak amaieran bokal bat, kontsonante bat edo *-tu* atzizkia izan dezake.

Aditz berriek, eratorriek nahiz maileguz osatuek, *-tu* atzizkia hartu ohi dute.

Horixe da euskarak aditz berriak sortzeko erabiltzen duen bidea.

Izenak bihurtu aditz eta idatzi hutsuneetan, adibidean bezala.

Izena	Partizipio eratorria	Izena	Partizipio eratorria	Izena	Partizipio eratorria
Lana	Landu	Otsoa		Hiritarra	
Margoa		Harria		Beldurra	
Emakumea		Zimurra		Gosea	

Izenondoak bihurtu aditz eta idatzi hutsuneetan, adibidean bezala.

Izenondoa	Partizipio eratorria	Izenondoa	Partizipio eratorria	Izenondoa	Partizipio eratorria
Ederra	Edertu	Biribila		Gorria	
Zintzoa		Txikia		Beltza	
Gaiztoa		Handia		Zabala	

Bete hutsuneak

Partizipioa	Aditz-izena	Aditzoina	Partizipioa	Aditz-izena	Aditzoina
	eramatea	eraman		hartzeari	har
	joatea	joan		ekartzea	ekar
	apurtzea	apur		esnatzeko	esna
	ikusteko	ikus		ohartzea	ohar
	saiatzeaz	saia		bidaltzea	bidal
	idaztera	idatz		kezkatzaz	kezka
	ixtea	itxi		kantatzeari	kanta

Partizipioa adjektibo

Iraupena: 7 min 24 s

HELBURUA

Partizipioa zer den eta noiz eta nola erabili ikastea.
Partizipioaren funtzioak esaldian zein diren ikastea.

EDUKIAK

Kontzeptuak: Partizipioak adjektiboaren funtzioa betetzen duenean.

Prozedura: Antzezpen laburrak. Partizipioa testuetan bilatzea.

EBALUAZIOA

—Hizkuntz-erabilera: testu-egitura, kohesioa, perpausen egitura, hitzen eraketa.

—Klasean proposatutako ekintzekiko jarrera.

ZER EGIN

- a) Ikusi atala oso-osorik.
- b) 7., 8. eta 9. orrialdeakfotokopiatu eta banatu. Ikasleko bana.
- d) 7. orrialdea etxean egiteko da.

e) 8. orrialdeko antzezpenean bi pertsonaia agertzen dira, Kristina eta Susana. Ikasleak binaka jarri eta pertsonaia aukeratzeko esan. Eman bost minutu testua osorik irakurtzeko.

Bost minutuak igaro ondoren, bikote bakoitzari beste ikasleen aurrera ateratzeko esan eta, hitzei intonazioa emanaz, solasaldia ozenki irakurtzeko eskatu.

f) 9. orrialdean proposatzen den ariketa egiteko ikasleak laukotetan banatu eta hamabost minutu eman.

Ariketa egin ostean, talde bakoitzeko partaide bakoitzak aurkitutako partizipio baten azalpena emango digu, ikus-entzunezkoan aktoreek egin duten bezala. Beraz, talde bakoitzak lau partizipio aurkitu beharko ditu, gutxienez.

Partizipioa predikatu osagarri gisa erabiltzen bada, dagokion izen-sintagmarekiko komunztadura gorde behar du. Hau da, izen-sintagma singularra bada, partizipioa singularrean joango da:

Xabier nekatua dago;

plurala bada, ordea, pluralean:

Xabier eta Miren nekatuak daude.

Susana eta Kristina bilera gelan

SUSANA —Hori itxura ederra bizkotxo horrek duena! **Erosia** al da?

KRISTINA —Ez, nik **egina** da.

SUSANA —Zuk **egina**?

KRISTINA —Bai, **esana** dizut, behin baino gehiagotan, tarta egile aparta naizela.

SUSANA —Ea bada, noiz gonbidatzen nauzun zure arte ikasia eta trebezia landua dastatzera.

KRISTINA —**Gonbidatua** zaude. Zatoz etxera nahi duzunean. Ateak **irekiak** daude zuretzat, beti.

SUSANA —Ño! Kris. Joango naiz, bai. Joango naiz.

KRISTINA —Hasteko, okela **frijitua** eta patata **egosiak** jarriko dizkizut, Kristinaren erara, eta saiheski **errearekin** bukatuko dugu lehen atala. Bigarren atala bizkotxoari eskainiko diogu. Zer iruditzen?

SUSANA —Aho bete hortz utzi nauzu, Kris. Ene bihotzaren erdia **irabazia** duzu dagoeneko.

KRISTINA —Ongi da, beste erdia irabazten ahaleginduko naiz afari egunean.

Partizipioa adberbio

Iraupena: 11 min 20s

HELBURUA

Partizipioa zer den eta noiz eta nola erabili ikastea.

Partizipioaren funtzioak esaldian zein diren ikastea.

EDUKIAK

Kontzeptuak: Partizipioak adberbioaren funtzioa betetzen duenean.

Prozedura: Antzezen laburrak eta partizipioa testu batean bilatzea.

EBALUAZIOA

—Hizkuntz-erabilera: testu-egitura, kohesioa, perpausen egitura, hitzen eraketa.

—Klasean proposatutako ekintzekiko jarrera.

ZER EGIN

- a) Ikusi atala oso-osorik.
- b) 11., 12 eta 13. orrialdeak fotokopiatu eta banatu. Ikasleko bana.
- d) **Partizipioa + -ta** (11. or.) Ikasleak binaka jarri. Pertsonaietako bat aukeratzeko esan. Bikote guztiei antzezen-gidoia irakurtzeko eskatu, bata bestea entzuteko moduan. Eman hamar minutu.
Partizipioak azpimarratuta dauzkate.
- e) **Partizipioa + -rik** (12. or.) Orrialdean proposatzen den ariketa egin. Bertan esaten da antzezen gidoia aurrean daukatela *-ta* amaiera daukaten partizipioak, *-rik* amaierako partizipioez ordezkatzera.
Ariketa eginda bikoteei banan-banan eta ozenki irakurtzeko eskatu. Lehenengo bikoteak Kristinaren lehenengoa eta Susanaren lehenengoa irakurtzeko, bigarrenak Kristinaren bigarrena eta Susanaren bigarrena, eta horrela bikote guztiek parte hartu arte.
Batzuek irakurtzen duten bitartean, besteek zuzenketak egin ditzakete euren paperetan.
- f) **Partizipioa + -(e)z, -az batera** (13. or.) Orrialde hau etxean betetzeko pentsatua dago, baina kalsean ere egin daiteke, irakurtzeko hamar minutu emanez eta idatzi dutena ozenki adierazteko eskatuz.

Partizipioa adberbio

-rik (ekintza burutua)

Begiratu gidoian eta idatzi hutsuneetan -rik amaiera duten partizipioak -tu amaiera dutenen orde.

Susana egongelan dago, ikasten. Kristina iristen da.

SUSANA —..... zegoela jakin duenean, geratu da. eta
....., beraz, partizipioak dira.

KRISTINA —Aupa, Susana. Kaleko oinetakoak al daukazu?

SUSANA —Ez. Zertara dator galdera hori?

KRISTINA —Ahaztu galdera. Zer egiten duzu hor ? zaudela egingo nuke.

SUSANA —Aspertuta nago, bai. Azterketa madarikatu honek erotu egingo nau.

KRISTINA —Nik badaukat gorputz akituak pizteko teknika bat. Jakin nahi al duzu?

SUSANA —Jakina, nahiko ez dut ba. Nagoen bezala, edozer egiteko prest nago, Kristina. Bota.

KRISTINA —Entzun adi. Karmeleren fruta-denda ikusi dut eta gure hozkailua zuri-zuri dago. Erosketak egitea, lasaigarri paregabea da aspertuta dagoenarentzat.

SUSANA —Aspertuta baino gehiago, nago. Bihar azterketa daukat.

KRISTINA —Kezkatuta horregatik? daukazu baina gaia.

SUSANA —Ikasita bai, baina, zalantzaz nago.

KRISTINA —Oi, oi, oi, Susana, Susana. Horiexek dira sintomak. Argi asko ikusten dut Karmelerengana joateak on egingo dizula.

SUSANA —Mesedez, Kris, oso nago. Leher nago, ,
..... , ,

Partizipioa izen

Iraupena: 4 min 50 s

HELBURUA

Partizipioa zer den eta noiz eta nola erabili ikastea.
Partizipioaren funtzioak esaldian zein diren ikastea.

EDUKIAK

Kontzeptuak: Partizipioak izenaren funtzioa betetzen duenean.
Prozedura: Antzezpen laburrak. Partizipioa testuetan bilatzea.

EBALUAZIOA

—Hizkuntz-erabilera: testu-egitura, kohesioa, perpausen egitura, hitzen eraketa.
—Klasean proposatutako ekintzekiko jarrera.

ZER EGIN

- a) Ikusi atala oso-osorik.
- b) 14. eta 15. orrialdeak fotokopiatu eta banatu. Ikasleko bana.
- d) 15. orrialdeko hutsuneak klasean bete. Hamar minutu eman. Ikasleei esan zalantzak argitzeko beldurrik gabe galdetzeko.
- e) 16. orrialdeko antzezpen-gidoia lantzeko ikasleei hirunaka jartzeko eskatu. Hirukoteko bakoitzak bere pertsonaia hautatzeko eta hiruron artean irakurketa prestatzeko eskatu.
Irakurritakoan, hirukoteek, banan-banan eta klaseko ikasle guztien aurrean, testua aurrean daukatelarik, antzeztu egingo dute.

Koldo berandu iritsi da bulegora. Han, Xabierrek eta Kristinak kontuak eskatzen dizkiote.

KOLDO —Kaixo, adiskideak, barkatu **berandu etorri izana**.

XABIER —Zer gertatu zaizu? Bostetatik zain gauzkazu. Ekarri al duzu txostena?

KOLDO —Txostena. Banekien zerbait falta zitzaidala. Txostena.

XABIER —Koldo, mesedez. Berandu etorri izana barkagarria da, baina txostena **ahaztu izana...**

KOLDO —Txostena **gogoratu ez izana**, ez da nire errua izan.

KRISTINA —Arraioa! Koldo! Aitzakia bat asmatu behar al duzu?

KOLDO —Ez, aitzakia ez. Txostena zuk hartu zenidan atzo, Xabier. Ez al duzu gogoratzen?

XABIER —Egia da. Orain oroitzen dut. Nire zorroan daukat. Barka, Koldo, gaizki esanak.

KOLDO —Ez zaitetz kezka. Denok gaude urduri samar, proiektuaren aurkezpena dela eta.

KRISTINA —Hara, hara. Bikote ederra. Barraskiloa eta barea. Albiste bat daukagu zurekin zerikusia duena, Koldo.

KOLDO —Zer diozu?

KRISTINA —Albiste bat daukagula zurekin zerikusia duena.

KOLDO —Bota. Entzuteko prest naukazue. Esan dizuet damu dudala lehenago **ez etorria**.

XABIER —Entzuteaz batera damutuko zaizu lehenago **etorri ez izana**.

KOLDO —Zer, lagunak? Nire nerbioen kalitatea frogatu nahian zabilzate, ala? Zoazte pikutara.

KRISTINA —Gogoratzen duzu Anderren jaiari ezagutu zenuen gaztea?

KOLDO —Nerea?

XABIER —Bai. Deitu egin du, eta zutaz galdetu.

Liburuak

ZUBIRI, Hilari ; ZUBIRI, Entzi: *Euskal Gramatica Osoa*, Didaktiker, Bilbo, 2000.

ZUBIZARRETA, Aitor; DORRONSORO, Mikel; ZUBIMENDI, Josemari: *Gramática Gaitasuna Lantzen*, Euskara Zerbitzua, Glotodidaktika-lanak. Gasteiz, 2000.

EUSKALTZAINDIA: *Euskaltzaindiaren arauak*, Euskaltzaindia, Bilbo, 1994-2000.

Orri elektronikoa

www.hiru.com

Euskal Aditzari Begira

Aditz multzoaren egitura

Adizki jokatuqabeak -I-

Adizki jokatuqabeak -II-

Adizki jokatuqabeak -III-

Adizki jokatuqabeak -IV-

Adizki jokatuak -I-

Adizki jokatuak -II-

Adizki jokatuak -III-

Agintera, baldintza eta aditz arazleak

Aditz-lokuzioak

Zenbait aditz bihurri

Ekoizlea:



Getaria, 18-behea
01010-Gasteiz

Tel-faxa: 945200608

artez@ikusentzunezkoa.euskalnet.net

www.artez-bai.com

LG.- VI- 463 / 08

Ikasmaterial honek
Hezkuntza, Unibertsitate
eta Ikerketa Sailaren
egokitasun-aitormena du.

2008 / 11 / 27